

Anai arreba maiteok:

Elizbarrutian bizi dugun une honek, eraberritze pastoral eta misiolariak markatua dagoelarik eta gure Elizbarrutiaren erakuntzaren 75 urteurrenean eta -«Erromesak itxaropenean» goiburu duen- Eliza osoaren Jubileu urtean, kristau itxaropenean era berezian sakontzera dei egiten digu. Bestalde, zalantzarik gabe, landu eta partekatu beharrean gara itxaropena, bertute oinarrizkoa gertatzen baita. On Fernando Prado gure gotzainak, bere azken pastoral gutunean, «Harengan gure itxaropena», gogoratzen digu «Espiritu Santuak eragiten digula horretara, beti gure gainera bere arnasa isurtzen ari da, nahiz eta mugak zailtasunak eta inguruabar nahasiak bizi ditugun».

Kristau itxaropena sendotzeak eta bizitzeak lagunduko digu, bai gure espiritualtasuna lantzen –ezinbestekoa baita norberaren eta elkarrearen konbertsiorako–, bai bizi dugun errealitatea argitzen, errealitate horren argi eta itzaluneak, mehatxuak eta aukerak fede-ikuspegitik irakurtzea ahalbidetuz... Itxaropenak sumaraziko digu Jainkoa geurekin dugula, eta Berak jarri digun helbururantz joango gara, nor bere aldetik ez ezik baita besteekin batera ere, kristau-elkarte garez.

Hori dela eta, zuei, anai arreba maiteoi, zuzentzen dizkizuet hitz hauek, honako hau egitera animatuz: kristau itxaropena –inoiz huts egiten ez duen itxaropena– ardatz harturik, denbora hartzera gure elkarteetan Jainkoaren Hitzarekin otoitz egiteko.

Horretako, otoitz egiteko lagungarriak prestatu ditugu Lectio Divina tankeran erabiltzeko: “Jainkoagan nire itxaropena”. Hitzaren inguruan 10 elkarketa egiteko lagungarriak dira, norberaren eta elkarrearen fedea sakontzen laguntzeko, Jubileuarekin sintonizatuz, baita Elizbarrutiak ekin dion eraberritze pastoral eta misiolariarekin ere. Hona hemen elkarketa horietako gaiak:

1. Elkarketa: Itxaropenak ez du huts egiten (Erm 5, 1-11)
2. Elkarketa: Azkenean bete-bete maitatu zituen (Jn 13, 1-17)
3. Elkarketa: Jainkoagan uste ona (Mt 6, 24-34)
4. Elkarketa: Utzi biak batera hazten (Mt 13, 24-30)
5. Elkarketa: Barkatuak dituzu zeure bekatuak (Lk 7, 36-50)
6. Elkarketa: Zergatik zarete hain beldur, sinesmen txikikook? (Mt 8, 23-27)
7. Elkarketa: Ez zarete gauza garai hauen seinaleei igartzeko (Mt 16, 1-12)
8. Elkarketa: Aita, urrun ezazu nigandik edari samin hau (Lk 22, 39-46)
9. Elkarketa: Ez al genuen barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaigunean? (Lk 24, 13-35)
10. Elkarketa: Poztu zaitez, Maria (Lk 1, 26-56)

Ekimen hau, ahal den neurrian, elkarte guztietan gauzatzea nahi genuke. Nahi bazenute, guk bidaliko genizkizueke lagungarriak (nahiz era digitalean nahiz paperean) eta kartel bat. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu telefono honetara: 629 94 51 74

Dena dela, Jainkoaren herriak otoitz-bidealdi honetara biltzeko egokiera izan dezan, 6 toki izendatu ditugu, artziprestalde bakoitzean bat. Hamabostean behin izatekoak dira elkarketak, urtarrilean hasi eta maiatza arte. Hona hemen izendatutako tokiak:

- Andoain. Ostegunetan, 18:00tan. Animatzailea: Ana Zubiri, Jesuitina.
- Arrasate. Ostegunetan, 20:00tan (Abade etxean). Animatzailea: Pako Etxebeste, apaiza.
- Beasain. Ostegunetan, 16:00tan (Asunción parrokian). Animatzailea: Javier Churruca, apaiza.
- Hondarribia. Ostegunetan, 19:00tan (Karmeldar oinutsen Monasterioan). Animatzailea: Patricia Noya, Karmeldarra.
- Donostia. Ostegunetan, 20:00tan (Katedraleko kaperan). Animatzailea: Mikel Aranguren, Bikario Nagusia.
- Zumaia. Ostegunetan, 20:00tan (San Pedroko parrokian) Animatzailea: Yon Cuadrado, apaiza.

Jainkoaren Hitzaren inguruan egindako elkarketa hauek itxaropen- eta indar-iturri izango direlakoan Gipuzkoako gure Elizbarrutian pelegirino garen guztiontzat.

Esker onez eta itxaropenez,

Donostian, 2024ko abenduak 11

Mikel Aranguren Zubialqui
Bikario Nagusia